

opusdei.org

Inork zaindu izan badu ozenki euskara, eliza izan da

Barandiaran Fundazioaren
lehendakari eta Labayru
Ikastegiko zuzendari den Ander
Manterola Nafarroako
Unibertsitatean egon da Jose
Migel Barandiaran eta
Nafarroako Unibertsitatearen
arteko harremana azaltzeko

2004 Mar 30

Euskara eta euskal etnografia izan dira 69 urteko zeanuritar honek gehien landu dituen eremuak. Louvainetik bueltan Labayru ikastegia sortu zuen, orain dela 25 urte. Etniker Bizkaia aldizkariaren aita ere bada. Euskal etnografiaren mundura Joxe Migel Barandiaranen eskutik sartu zen 1972 urtean. Gaur, Barandiaran Fundazioaren lehendakaritza darama. Joan den astean Iruñara bueltatu zen, hiri ezaguna beretzat, Abarrots taldearen eskutik Nafarroako Unibertsitateari hitzaldi bat emateko.

- Nola aldatu dira gauzak hasi zinenetik gaurdaino?

Asko erraztu egin dira. Gero, gehienbaten badakizu zenbat argitaratu izan den euskaraz azken hogeitaz hamar urte hauetan. Beharbada aurreko bi gizaldietan baino gehiago. Ikastoletatik etorri den jakituria ere... asko sakondu da. Gainera

hirietan euskara prestigiatu egin da.
Gaur egun badira unibertsitatean
bertan euskaraz ikasteko modurik.
Literatura munduan ere belaunaldi
berri Portu da, Atxaga, Irigoien,
Lertxundi,... Alde horretatik nik uste
gauzak hobetzen ari doazela.

- Orain dela hamar urte baino
gehiago Barandiaran hil zela. Gaurko
egoera ikusiko balu?

Berak beti esaten zuen etorkizuneko
egoerak hobeagoak izango zirela.
Pozik egongo litzateke bere
etnografiaren proiektua aurrera
eraman ahal izateko. Ze berak
lehenbiziko bolumena baizik ez zuen
ezagutu.

-Bere lanari buruz badaude oraindik
gauza berriak ezagutzeke?

Nik uste baietz. Barandiaranen obra
hemendik ehun urtera
interesgarriagoa izango da galdu den
herri mentalitatea ezagutzeko.

- Eta zein uste duzu izan dela elizaren papera euskararekiko?

Elizaren papera gutxituz doa gizartean, baina gauza bat esan nezake: inork zaindu izan badu euskeria historian zehar, publikoki, ez etxe barrean, ozenki, eliza izan da. Batzuk esaten diote erruduna izan dela; behar bada bai, mundu honetan ez dago inor erruduna ez denik.

Jose Migel Barandiaran eta Nafarroako Unibertsitatea

Jose Migel Barandiaran (1889-1992) antropologo eta apaiz ospetsuak aspaldidanik izan zuen Nafarroako Unibertsitatearekin harremana. 1964ko urtarrilaren 30an, orduko Nafarroako Unibertsitateko Filosofia eta Letren irakaslea, D. Manuel Ferrer, hari bisitatzera joan zitzaion. Orduantxe eman zioten Jose Migel Barandiarani Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedraren ardura eta, urte

horretan bertan Euskal Herriko
Aurre-historia eta Etnologia
irakasgaia ematen hasi zen harik eta
1978an erretiratu zen arte. Irakasgai
hau eman ahal izateko Bianako
Printzea instituzioaren dirulaguntza
izan zuen hastapenetan.

Iruñean Barandiaranek Etniker
taldea sortu zuen. Nafarroako
ikerketa talde horretan Inkesta
etnologikoak egiteko Gida bat garatu
zuten. Handik gutxira (1972an)
Etniker Bizkaia sortua izan zen.
Geroago beste bi: Etniker Gipuzkoa
eta Etniker Araba. Horietan guztietan
Jose Migelek bere lankideekin
garatutako galdetegiak erabiliak izan
dira haien ametsari hauspoa
emateko asmoz: Euskal Herriko Atlas
Etnografikoa argitaratzea.

Egun, Etniker Nafarroako saila
Nafarroako Unibertsitatetik
zuzendurik dago: María Amor
Beguiristáin dugu zuzendari.

Irakasle honek beronek editatu du Jose Migel Barandiaranen irakasgaia izenburu honekin: Curso monográfico de etnología vasca (Donostian, 2000). Bertan irakasgai hau emateko Jose Migelek erabilitako apunte eta materialak ematen dira argitara, berak eskuz egindako irudiekin eta zenbait artxibategitik ateratako argazkiekin hornituak, gai honetan murgiltzeko eskuliburu aproposena izanik.

Diario de Navarra, 2004ko urtarrilak 19

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/inork-zaindu-izan-badu-
ozenki-euskara-eliza-izan-da/](https://opusdei.org/eu-es/article/inork-zaindu-izan-badu-ozenki-euskara-eliza-izan-da/) (2026 Mar
9)